

Tipulintxoren abenturak

1.go atala

Tipulatzarrak Limoi printzeari oin bat birrinduko dio

Tipulintxo Tipulatzarraren semea zen eta zazpi anai zituen: Tipulatxo, Tipulaxka, Tipuleta, eta horrela izen guztiak, tipula familia bati dagokion bezala. Jende ona, baina, lotsa ematen dit horren goiz esateak, nahiko zorte txarrekoa. Zer nahi duzu: tipula jaio bazara, malkoak etxean bertan dituzu.

Tipulatzarra eta bere semeak egurrezko etxola batean bizi ziren, baserrietan ikusten diren txabolak baino pixka bat handiagoan. Handik pasatzen ziren aberatsek sudurra okertzen zuten nazkatuta:

— Ai ama, hau da hau tipula kiratsa —esaten zuten, eta karrozazainari zaldiak xaxatzeko agintzen zioten.

Behin, Limoi printze gobernadoreak ere handik igaro behar zuen. Gorteko dignatarioak oso kezkatuta zeuden.

— Zer esango du Berorren Gorentasunak txiro usain hura sumatzean?

— Lurrindu genitzake—Txanbelan Handiak iradoki zuen.

Limoitxo dozena bat bidali zuten berehala txiroak lurrintzera. Horretarako, etxean ezpata eta fusilak utzi, bidoi handiak koloniako uraz eta existitzen den arrosa esentziarik finenaz bete, Bulgariakoaz hain zuzen ere, eta bizkar gainean hartu zituzten. Tipulatzarra, bere semeak eta senideak etxolatik irtetera eta paretaren kontra lerratzerara behartu zituzten eta goitik behera busti zituzten erruz, Tipulintxok katarroa harrapatzeraino.

Handik gutxira tronpeta hotsak aditu ziren eta gobernadorea bera iritsi zen, segizioko limoi eta limoitxoekin. Limoi printzea erabat horiz jantzita zegoen, kapela ere bai, eta kapelaren gainean urrezko kanpaitxo bat zeraman. Gorteko limoiek zilarrezko kanpaitxoa zeramaten eta maila baxuko limoitxoek, brontzezkoa. Denak batera kontzertu zoragarri bat egiten ari ziren eta jendea haiek ikusteko lasterka eta garrasika zihoan:

— Banda iritsi da!

Baina ez zen musika banda bat. Tipulatzarra eta Tipulintxo aurreneko ilaran ziren eta atzekoen bultzada eta ostikoak jasotzen ari ziren bizkarrean eta hanketan. Zahar gaixoa kexaka hasi zen:

— Atzera! Atzera!

Limoi printzeak entzun eta haserretu egin zen. Haren aurrean gelditu eta, bere hanka okerretan ondo bermatuta, gogor aurpegiratu zion:

— Zergatik oihukatu duzu "atzera, atzera"? Nire menpekoek ni txalotzeko aurrera egiteak gogaitzen zaitu, beharbada?

— Berorren Gorentasuna —Txanbelan Handiak belarrira xuxurlatu zion—, gizon hau subertsiboa eta arriskutsua iruditzen zait; hobe da zaintzapean edukitzea.

Polizia bat berehala lotu zitzaion Tipulatzarra largabista berezi batekin zelatatzeari; subertsiboak zaintzeko erabiltzen ziren eta polizia bakoitzak bana zeukan. Tipulatzarra koitadua

dardaragatik berde geratu zen.

— Maiestate —ausartu zen—, bultzatu egin naute!

— Ondo egin dute! —Limoi printzeak orroka—. Ondo baino hobeto!

Orduan, Txanbelan Handia jendetzara itzuli eta ondorengoa adierazi zuen:

— Menpeko maiteak, Berorren Gorentasunak zuen estimua eta bultzadak eskertu nahi dizkizue. Bultzatu, hiritarrak, bultzatu gogorrago!

— Gainera eroriko zaizkigu! —Tipulintxo ausartu zen.

Segidan polizia batek bera ere largabistaz zelatatzeri ekin zion; Tipulintxok ospa egiteko garaia zela pentsatuta, bertaratuenen hanka artetik sartu zen. Hauek minik ez eragiteko ez ziren aurrenekoen bizkarrak gehiegi bultzatzen ari, baina Txanbelan Handiak zenbait begirada gaizto banatu eta masa ura pertz baten barruan baino biziago dantzatzen hasi zen. Izan ere, horrenbeste bultzatu zuten non Tipulatzarrak zuzen-zuzenean Limoi printzearen oinen gainean bukatu baitzuen. Eguna izanda ere, Berorren Gorentasunak zeruko izar guztiak ikusi zituen gorteko astronomoen laguntzarik gabe. Hamar maila baxuko limoixok denak batera zorigaiztoko Tipulatzarraren bizkarrera salto egin eta bilurtu zuten.

— Tipulintxo! Tipulintxo! —garrasi egiten zuen agureak handik eramaten zuten bitartean.

Tipulintxo momentu hartan urruti zegoen, baina ordurako bere inguruko jendetza jakinaren gainean zegoen; gainera, horrelako kasuetan ohikoa denez, baten batek oraindik eta gehiago ere bazekien:

— Eskerrak atxilotu duten: Berorren Gorentasuna sastatu nahi zuen!

— Baita zera ere! Poltsikoan metraileta bat zeraman, ba!

— Poltsikoan? Tira, hori ezinezkoa da.

— Ez dituzue kolpeak aditu?

Kolpeak, egia esan, Limoi Printzearen ohorez lehertutako petardoak ziren, jendea ikaragarri izutu zutenak, edozein lekutarantz ihes eginaraziz.

Tipulintxok gustura esan ziekeen aitzak poltsikoan Toskanako puru baten mutxikina besterik ez zuela; halere, entzun ere ez ziotela egingo pentsatu zuen segidan. Gaixoa Tipulintxo! Eskuineko begitik ondo ikusten ez zuela iruditu zitzaion: malkotxo bat zen, hala edo nola irten nahi zuena.

— Tentela —garrasi egin zion Tipulintxok, adoretzeko hortzak estutuz.

Malkotxoak, izututa, buelta eman eta geroztik ez zaio berriz ere ikusi.

Laburbilduz: Tipulatzarrari hil arteko espetxe-zigorra ezarri zioten: are gehiago, baita hil ondokoa ere, Limoi Printzearen kartzela hilerria ere bazelako.

Tipulintxo bisitan joan eta besarkatu zuen.

— Gaixoa aitatxo! Gaizkileen modura espetxeratu zaituzte, lapurrik txarrenekin batera!

— Seme, kendu ezazu ideia hori burutik, —esan zion maitekor aitatxok—. Kartzelan, zaldunen gaina eta lorea dago.

— Eta zer egin dute gaizki?

— Ezer ez; horregatik daude kartzelan. Limoi Printzeari ez zaio jende ona gustatzen.

Tipulintxoak momentu batez hausnartu eta ulertu zuela iruditu zitzaion.

— Orduan espetxean egotea ohore bat al da?

— Era batean, bai. Kartzelak lapur eta hiltzaileentzat eginda daude, baina Limoi Printzea agintean dagoenetik, lapurrak eta hiltzaileak gortean daude eta hiritar onak kartzeletara doaz.

— Nik handitan hiritar ona izan nahi dut —Tipulintxoak—. Ez dut, ordea, espetxean bukatu nahi. Hona itzuliko naiz eta denak askatuko ditut.

Une hartan, guardiako limoitxoak elkarrizketa amaituta zegoela ohartarazi zien.

— Tipulintxo —kondenatu koitaduak esan zion—, zeu jadanik handia zara eta zure gauzez ardura zaitezke. Osaba Tipulak ama eta anaiak zainduko ditu. Hartu zure arropa eta bidaiatu ezazu mundu zabaletik, ikasteko.

— Baina ez dut libururik, ezta haiek erosteko dirurik ere.

— Ez du axola. Ikasgai bakarra hartuko duzu aintzat: pikaroak. Bat topatu ezkerro, gelditu zaitetz ondo ikasteko.

— Eta ondoren, zer egin behar dut?

— Une egokian bururatuko zaizu.

— Goazen, goazen —limoitxoak—, nahiko berriketa egin duzue. Eta zu, ume-moko hori, ez hurbildu hona ez baduzu zeuk ere ziegan bukatu nahi.

Tipulintxoak bazuen erantzun bat mihi puntan prest, baina lanean hasi aurretik atxilotua izatea merezi ez zuela konturatu zen. Hortaz, aitatxo besarkatu eta alde egin zuen.

Egun horretan bertan utzi zituen ama eta anaiak Tipula osabarekin: pertsona ona zen; atezain postua zuenez, ez gehiago eta ez gutxiago, senitartekoak baino zorte handiagoa zuen. Gero, fardeltxo bat makilan sartuta, Tipulintxoa abiatu zen.

Aurretik zuen lehenengo kalea hartu zuen, baina hauxe —ikusiko duzuen— kale egokia zen. Ordu pare bat martxan igarota, baserritar herrixka baten hasiera aurkitu zuen, zeinen izena lehenengo etxean ere ez zegoena. Are gehiago, lehenengo etxe hura ez zen etxe bat, zakurrentzako etxolatxo moduko bat baizik, saltxitxa-txakur batentzat ozta-ozta. Leihatilan, aguretxo bizargorri baten aurpegia zegoen, kanpora begira eta bere kontuak deitoratzen oso okupatua zirudiena.

Gianni Rodari

Itzultzailea: Yoseba Peña